

## **Irailaren 7ko 146/1999 FORU DEKRETUA, Egoiliar ez direnen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudia onetsi duena (BAO Irailaren 28koa)**

Egoiliar ez direnen Errentaren gaineko Zergari buruzko apirilaren 15eko 5/1999 Foru Arauaren bidez arau batzuk gehituko zitzaizkion Bizkaiko Lurralde Historikoaren zerga-sistemari, hain zuzen ere Espainiako lurraldeko egoiliar ez direnek Bizkaian establezimendu iraunkorrik gabe eskuratzen dituzten errentengatik edo zerga-egoitza bertan duen establezimendu iraunkorrean eskuratzen dituztenengatik Zerga nola ordaindu behar duten araupetu dutenak.

Halako zergadunen zerga-ordainketa, pertsona fisikoena zein juridikoena, arau-multzoko bakarrean sartzeak berekin dakar araudi bakarra eratu beharra; horretarako orain arte Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudian eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko Araudian ezarritako xedapenetako batzuk indargabetuko dira eta beste batzuk, berriz, indarrean mantenduko dira, esaterako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren eta Ondarearen gaineko Zergaren aitorpenerako eta egoiliar ez diren erakundeen ondasun higiezinaren gaineko karga bereziaren aitorpenerako arauak eman dituen ekainaren 30eko 78/1998 Foru Dekretua.

Horregatik, apirilaren 15eko 5/1999 Foru Arauaren azken xedapenetatik lehenengoan ageri den baimenaz baliatuz, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak proposaturik eta Bizkaiko Foru Aldundiak 1999ko irailaren 7ko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, ondokoa

XEDATU DUT:

### **LEHEN KAPITULUA ESTABLEZIMENDU IRAUNKORRAREN BIDEZ LORTUTAKO ERRENTAK**

#### **1. artikulua. Establezimendu iraunkorrari lotutako ondare-elementuak.**

Erakunde baten funts propioetako partaidetza ordezkatzen duten eta establezimendu iraunkorraren xedeko jarduerari funtzionalki lotuta dauden aktiboak establezimenduari lotutako ondare-elementutzat hartuko dira, bakar-bakarrik, establezimendua Merkataritza Erregistroan inskribaturiko sukurtsala denean, eta gainera baldintza hauek bete behar dira:

- a) Aktiboak establezimendu iraunkorraren kontabilitate orrietan jaso behar dira.
- b) Baldin eta establezimendu iraunkorra, Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauaren 74. artikuluan ezarritakoari jarraituz, sozietate nagusitzat jo badaiteke, establezimendu iraunkor horrek egoki antolatutako bitarteko materialak eta giza baliabideak eduki behar ditu partaidetzak zuzendu eta kudeatzeko.

#### **1. bis artikulua. Establezimendu iraunkorrek askotarikoak izatea.**

Zergadun batek jardueragune bat baino gehiago badu eta haietako bakoitza, Egoiliar ez direnen Errentaren gaineko Zergari buruzko apirilaren 15eko 5/1999 Foru Arauaren 16. artikuluan 1. idatz-zatian xedatu denaren arabera, establezimendu iraunkor bereizitzat jo behar bada, bakoitzak bere izendazio berariazkoa izan beharko du.

Zergaduna pertsona juridikoa bada, horrez gainera establezimendu bereizi bakoitzak bere identifikazio fiskaleko zenbakia izan beharko du.

## **2. artikulua. Zuzendaritza-gastuetatik eta administrazio-gastu orokorretatik establezimendu iraunkorrari egotz dakiokoen zatia nola baloratu.**

1. Establezimendu iraunkorretan ari diren zergadunek zuzendaritza-gastuetatik eta administrazio-gastu orokorretatik establezimendu iraunkorrari egotz dakiokoen zatia baloratzeko proposamenak aurkeztu ahal izango dizkiote Zerga-Administrazioari, hain zuzen ere zerga-oinarria zehaztean kendu ahal izango den kopurua baloratzeko, Zergari buruzko Foru Arauaren 17. artikulua 1. idatz-zatiaren b) letran xedatutakoaren arabera. Proposamenak manu hartan ezarritako egozketa-irizpideak aplikatuz prestatu beharko dira.
2. Eskabideak tramitatu eta ebazteko prozedura erakunde lotuek kudeaketarako laguntza zerbitzuak egitearen ziozko gastuak kentzeko proposamenak egiteko ezarritakoa bera izango da; prozedura hori Sozietateen gaineko Zergari buruzko Araudia onetsi duen ekainaren 10eko 81/1997 Foru Dekretuaren I. tituluaren IV. kapituluaren arabera.
3. Aipatu foru dekretu horren 10. artikulua 4. idatz-zatian xedatutakoari loturik, zergadunek jarraiko agiri hauek aurkeztu beharko dituzte proposamenarekin batera:
  - a) Proposamenean agertarazitako zuzendaritza-gastuen eta administrazio-gastu orokorren deskripzioa.
  - b) Establezimendu iraunkorrari egotz dakizkiokeen gastuak eta horretarako aplikaturiko irizpideak eta banaketa-moduluak.
  - c) Beste zerga-administrazioek oniritzitako proposamenak edo beste haiek tramitatzen ari diren proposamenak.

## **3. artikulua. Zenbait establezimendu iraunkorretatik zerga ordaintzeko dagoen aukera.**

Zergadun batek, Zergari buruzko Foru Arauaren 17. artikulua 5. idatz-zatiaren b) letran ezarritakoaren arabera, establezimendu orokorretarako ezarritako araubide orokorra aplikatzea aukeratzen badu, aukeraketaren ondorioek establezimendu iraunkortzat jotzen denaren eraikintzak, instalazioak edo muntaketak irauten duen beste iraungo dute.

## **II. KAPITULUA ESTABLEZIMENDU IRAUNKORRIK GABE LORTZEN DIREN ERRENTAK**

### **4. artikulua. Jarduera edo ustiapen ekonomikoari dagokien zergaoinarria nola zehaztu.**

1. Jarduera edo ustiapen ekonomikoa establezimendu iraunkorrik gabe egiten denean, zerga-oinarria zehaztean jarraian adieraziko diren partidak kendu ahal izango dira gastuen guztirako kopurutik:
  - a) Jarduera edo ustiapen ekonomikoan zuzenean aritzeko Espainiara lekualdatzen edo Espainiako lurraldean kontratatzen diren langileen soldadak, alokairuak eta gizarte-zamak; nolana ere, horretarako behar den zerga ordaindu dela edo lanaren etekinei dagokienaren konturako ordainketak egin direla frogatu edo bermatu beharko da.
  - b) Espainiako lurraldean egiten diren obra edo lanetarako behin betiko ekartzen diren materialak. Materialok Espainiako lurraldean eskuratzen ez direnean, arantzel-eskubideak edo Balio Erantsiaren gaineko Zerga likidatzeko aitortzen den kopurua kendu ahal izango da.
  - c) Jarduera edo ustiapen ekonomikoan zehar Espainiako lurraldean kontsumitzen diren hornigaiak. Honi dagokionez, hornigaitzat biltegian gorde ezin daitezkeenak soilik hartuko dira.
2. Aurreko b) eta c) lerroaldeetan aipatutako partidak sarreretatik kendu ahal izango dira, baina gastuak egin egin direla frogatzen duten fakturak edo antzeko agiriak enpresarietara

edo profesionalak fakturak luzatu eta eman beharra araupetu duten arauetan eskatzen diren beharkizun formalak betez luzatzen direnean soilik.

#### **5. artikulua. Betebehar formalak.**

1. Zergari buruzko Foru Arauaren 23.2. artikuluan aipatutako errentak eskuratzen dituzten zergadunek jarraiko erregistro-liburu hauek bete beharko dituzte:
  - a) Sarreraren erregistro-liburua.
  - b) Gastuen erregistro-liburua.
2. Halaber, aurreko idatz-zatian aipatu diren zergadunek ematen dituzten fakturak gorde beharko dituzte, eta gorde ere daten arabera antolatuz, enpresariak eta profesionalak fakturak luzatu eta eman beharra araupetu duen urriaren 24ko 133/1995 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera; jasotzen dituzten fakturak eta bestelako frogagiriak ere gorde beharko dituzte.
3. Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuari baimena eman zaio artikulua honetan aipatutako erregistro-liburuak nola bete behar diren zehazteko.

#### **6. artikulua. Zergaren aitortzea Espainian establezimendu iraunkorrik gabe errentak lortzen direnean.**

1. Zergadun batek establezimendu iraunkorrik gabe zergapeko errentak eskuratzen baditu, Zergaren aitortzea aurkeztu beharko du, eta zerga-zorra zehaztu eta ordaindu beharko du.

Zerga birritan ez ordainarazteko asmoarekin Espainiak hitzarmena sinatua duen herrialderen bateko egoiliar den zergadun batek hitzarmenari heltzen badiu, aipatu hitzarmenean zergapetzeaz ezarritako muga edo bertan ezarritako salbuespenak aplikatuko ditu aitortzearen zerga-zorra zehazteko. Horretarako, egoitza-ziurtagiria erantsi beharko dio aitortzeari, behar den zerga-agintaritzak emana, edo bestela hitzarmenetako garapen-aginduetan ezarritako formularioa.
2. Orobat, Zergari buruzko Foru Arauaren 8. artikuluan definitutako erantzule solidarioek ere aitortzea aurkeztu ahal izango dute eta zerga-zorra ordaindu ahal izango dute.
3. Aurreko 1. idatz-zatian xedatutakoa gora-behera, zerga hau ordaindu behar dutenek ez dute egin beharko lehendik Zergaren zioz atxikipena edo konturako sarrera egin zaien errenten aitortzean, foru dekretu honen 18. artikuluan ezarritako kasuan izan ezik; halaber, ez dute egin beharko Zergari buruzko Foru Arauaren 13. artikuluan ezarritakoa edo zergapetze bikotzari buruzko hitzarmenen batean ezarritakoa dela bide salbuetsita egonik atxikipenaren edo konturako sarreraren zio izan daitezkeen errenten aitortzean.
4. Foru dekretu honen 14. artikuluan 3. idatz-zatiarekin bat etorritik atxikipena edo konturako sarrera egin beharretik salbuetsita dauden zergapen errentak eskuratzen dituzten zergadunek Zergaren aitortzea aurkeztu beharko dute artikulua honen aurreko idatz-zatietan ezarritakoari lotuz.

### **III. KAPITULUA**

#### **EGOILIAR EZ DIREN ERAKUNDEEN ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO KARGA BEREZIA**

#### **7. artikulua. Egoiliar ez diren Erakundeen Ondasun Higiezinaren gaineko Karga Berezia.**

1. Egoiliar ez den erakunde batek Bizkaian ondasun higiezinak edo haien gaineko gozamen-eskubide errealak badu, zeinahi titulu dela bide, Zerga ordaindu beharko du, hain zuzen ere urtean-urtean abenduaren 31n sortu eta jarraiko urtarrilean aitortu eta sartu beharko den karga berezia.

Egoiliar ez den erakunde batek Bizkaian ondasun higiezin bat baino gehiago badu edo ondasun higiezin bat baino gehiagoren gaineko gozamen-eskubide errealak baditu, zeinahi titulu dela bide, karga bezeri honen zioz aitorten bakarra aurkeztuko du, eta aitortenari batuta ondasunak berezita ageri diren zerrenda aurkeztuko du. Ondore hauetarako, ondasuntzat katastroan erreferentzia berezita dutenak joko dira.

2. Zergari buruzko Foru Arauaren 32. artikulua 5. idatz-zatiaren c) letran xedatutakoak ondoreak izan ditzan, jarraian adieraziko diren kasuetan higiezinaren ukantza edo errentamendu hutsa ez beste ustiapen ekonomiko bat dagoela ulertuko da:
  - a) Egoiliar ez den erakundearen jabetzako higiezinaren edo higiezinaren edo hark gozamen-eskubide errealak harturik dituen higiezinaren edo higiezinaren benetako balioa ustiapen ekonomikoari atxikitako ondare-elementuen benetako balioa halako bost baino gehiago ez izatea. Ondore hauetarako, higiezinaren bat ustiapenaren xederako erabiltzen bada partzialki, xederako benetan erabiltzen den higiezin-zatia hartuko da kontuan.

Aurreko lerroaldean xedatutakoarekin bat etorriz higiezin osoa hartzen duen ustiapen ekonomiko berezirik ez dagoela ulertu behar denean, karga bereziaren zerga-oinarria katastro-balioetik edo, haren ezean, Ondarearen gaineko Zergaren ondoretarako aplikatu beharreko xedapenen arabera zehazturiko balioetik ustiapen ekonomikoan erabiltzen ez den higiezin-zatiari dagokion kopurua izango da.
  - b) Ustiapen ekonomikoaren urteko eragiketen kopurua karga bereziaren zerga-oinarria halako lau edo gehiago izatea; zerga-oinarria Zergari buruzko Foru Arauaren 32. artikulua 2. idatz-zatian ezarritakoaren arabera kalkulatu da.
  - c) Ekonomi ustiapenaren eragiketen urteko kopurua 600.000 eurokoa edo handiagoa izatea.
3. Zergari buruzko Foru Arauaren 32. artikulua 5. idatz-zatiaren d) letran ageri den balizkoa jarraiko kasu honetan ere aplikatu da, egoiliar ez den ondasun higiezinaren jabetza nazioarteko zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmena (elkarri informazioa emateko klausularekin) aplikatzeko eskubidea duen erakunde baten bidez duenean.
4. Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak Egoiliar ez diren Erakundeen Ondasun Higiezinaren gaineko Karga Bereziaren aitortpena egiteko erabiliko diren ereduak ezarriko ditu.

#### **IV. KAPITULUA**

### **ESPAINIA EZ EUROPAR BATASUNEN BESTE ESTATU BATEKO EGOILIAR DIREN ZERGADUNEN AUKERAKO ARAUBIDEA**

#### **8. artikulua. Ezarpen-eremua.**

1. Kapitulu honetan araupetutako aukerako araubidea ezar dakiela eskatu ahal izango dute jarraian adieraziko diren baldintzak betetzen dituzten zergadunek:
  - a) Pertsona fisikoa izatea.
  - b) Espainia ez Europako Batasuneko beste estatu bateko egoiliarra dela frogatzea.
  - c) Ondokoak frogatzea:
    - 1.a. Zergaldian Espainiako lurraldean lanaren eta jarduera ekonomikoen bidez eskuratutako etekinen batura gutxienez zergaldian eskuratutako errenta guztien %75 dela.
    - 2.a. Euskal Autonomia Erkidegoan lanaren eta jarduera ekonomikoen bidez eskuratutako etekinen multzoa Espainiako lurraldean eskuratutako errenta osoaren zatirik handiena dela.

- 3.a. Bizkaiko Lurralde Historikoan lanaren eta jarduera ekonomikoen bidez eskuratutako etekinak, guztira, beste bi lurralde historikoetako bakoitzean eskuratutakoak baino gehiago direla.
- d) Espainian eskuratutako errentek, aurreko letran aipatu direnek, aurreko zergaldian Egoiliar ez diren Errentaren gaineko Zerga ordaindu izana.
2. Zergadunak zergaldian eskuratu duen errenta guztien kopurua zehazteko, epealdi horretan eskuratu dituen errenta guztiak hartuko dira kontuan, eskuratu dituen tokia eta ordaintzailearen egoitza gora-behera. Aurreko 1. idatz-zatiko c) letrako 1go eta 2gn zenbakietan xedatutakoari dagokionez,.
- Errentak kalifikatzeko, Egoiliar ez diren Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudiaren 8. artikulua 2. idatz-zatiaren b) letran xedatutakoa hartuko da aintzat. Araudi hori otsailaren 26ko 326/1999 Errege Dekretuak onetsi du.
  - Errenten zenbateko garbiak konputatuko dira; zenbateko garbiak Egoiliar ez diren Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudiaren 8. artikulua 2. idatz-zatiaren b) letran xedatutakoaren arabera zehaztuko dira.
- Aurreko 1. idatz-zatiko c) letrako 3gn zenbakian xedatutakoari dagokionez, errenten kalifikazioa eta konputua egiteko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 21eko 10/1998 Foru Arauan xedatutakoa beteko da.
3. Zerga honen kargapekoek, euren famili unitatearen mota Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko arautegian aipatzen diren horietakoa bada, kapitulu honetan araututako aukerako araubidea arautegi horretan baterako zerga-ordainketari buruz dauden arauak kontuan hartuta aplikatu dakiela eskatu ahal izango dute, baldintza hauek betez gero:
- a) Ezkontidea eta, hala denean, famili unitateko gainerako kideak Espainia ez Europar Batasuneko beste estatu bateko egoiliar direla frogatzea.
  - b) Aurreko 1. idatz-zatiko c) eta d) lerroaldeetan ezarritako baldintzak betetzea, famili unitateko kide guztiek eskuratutako errentak kontuan hartuz.
  - c) Eskabidea famili unitateko kide guztiek egitea, edo bestela haien legezko ordezkariak.
4. Kapitulu honetan ezarritako aukerako araubidearen ondoreetarako, zergaldia egutegiko urtea izango da. Hala ere, zergaduna abenduaren 31n ez beste egunen batean hiltzen bada, zergaldia heriotza-egunetan bertan amaituko da.
- Famili unitateko kideen zehazpena urte bakoitzeko abenduaren 31ko egoera kontuan izanik burutuko da.
- Hala ere, eta aurreko 1. idatz-zatiko c) letrako 3gn zenbakian xedatutakoari dagokionez, urtean zehar famili unitateko kideren bat hiltzen bada, famili unitateko gainerako kideek zerga batera ordaintzea aukeratu ahalko dute, eta hildakoaren errentak baterako aitortenean sartuko dituzte, baita Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko arautegian dauden famili kideen zati proportzionala ere, halakorik badute, kontuan izanik hildakoa egutegiko urteko zenbat egunetan izan den famili unitateko kide.
5. Aukerako araubidea ezin ezarri izango zaie inolaz ere arau bidez zerga-paradisuko kalifikaturiko herrialde edo lurraldeetako egoiliar diren zergadunei.

## 9. artikulua. Araubidearen edukia.

1. Bidezkoa dela frogatuz gero, aukerako araubidea artikulua honetan xedatutakoaren arabera ezarriko da.

2. Zerga-Administrazioak zergadunak aukerako araubidea ezar dakiola eskatu duen epealdiagatik Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zioz zenbat ordaindu behar duen zehaztuko du. Kalkuluan ondokoak hartu beharko dira kontuan:
  - a) Kontuan hartuko dira zergadunak zergaldian eskuratutako errenta guztiak
  - b) Aplikatu beharrekoa izango da abenduaren 21eko 10/1998 Foru Arauak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoak, 68. artikuluko 1. idatz-zatian xedatutakoa.
  - c) Zerga-Administrazioak emaitzako batez besteko karga-tasa finkatuko du; tasa hori jarraian adieraziko den zatidura bider 100 eginez sortuko da
    - Zenbakitzailea kalkulatzeko, kuota osotik kenduko dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 21eko 10/1998 Foru Arauaren VII. tituluan ezarritako kenkariak, 82 eta 85. artikuluetakoak izan ezik.
    - Izendatzailea oinarri likidagarria izango da.
    - Batez besteko karga tasa adieraztean bi dezimal jarriko dira.
  - d) Hala kalkulatu den batez besteko karga-tasa ondokoari ezarriko zaio, oinarri likidakorretik aukerako araubidea ezar dakioken zergadunak Espainiako lurraldean zergaldian eskuratutako errentei dagokien zatiari
3. Aurreko lerroaldean adierazitako eragiketen emaitzako kopurua zergadunak Egoiliar ez diren Errentaren gaineko Zergaren zioz zergaldian Espainiako lurraldean lortutako errentengatik ordaindutako kopuruaren guztirako zenbatekoa, konturako ordainketak barne, baino txikiagoa bada, Zerga-Administrazioak gaindikina itzuliko du, behar diren egiaztapenak egin ondoren, jarraiko artikuluan ezarritako prozedurarekin bat etorriz.

## **10. artikulua. Prozedura.**

1. Zergadun batek foru dekretu honen 8. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen baditu, kapitulu honetan araupetutako aukerako araubidea ezar dakiola eskatu ahal izango du.

Zergaduna hilez gero, eskabidea kausatzailearen ondorengoek aurkeztu ahal izango dute.

2. Zerga-Administrazioak aukerako araubidea ezartzeko baldintzak betetzen dituela frogatzeko beharrezkotzat jotzen dituen frogagiri guztiak eskatu ahal izango dizkio zergadunari.

Behar izanez gero, zergadunari eskatuko dio hilabeteko epean behar diren agiriak ekar ditzala, eta adieraziko dio ezen, hala egin ezean, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela.

Aukerako araubidea ezar daitekeela edo kontuan hartu beharreko inguruabar pertsonalak edo familiarak frogatzeko ekartzen diren agiriak Euskadiko Autonomia Erkidegoan ofiziala ez den hizkuntza batean idatzita daudenean, itzulita aurkeztuko dira.

3. Eskabideari buruzko ebazpen-erabakia eman aurretik, zergadunaren edo beraren ordezkariaren espedientea agertaraziko da, bidezko deritzen alegazioak aurkez ditzan.
4. Zerga-Administrazioak sei hileko epea izango du ebazpena emateko, eskabidea aurkezten denetik edo eskatutako agiriak ekartzen direnetik.

Epea amaitutakoan, eskabidean atzera egin dela ulertu ahal izango da, ustezko ebazpenaren aurka errekurtsioa edo erreklamazioa jartzeko edo berariazko ebazpenari itzaroteko.

Eskabideari isiltasunez gaitziritzen zaionean, ondoren ematen den berariazko ebazpenak ez du inola ukituko isiltasunaren esanahia.

5. Ebazpenean aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera egindako kalkuluak agertaraziko dira. Behar denean, Zerga-Administrazioak foru dekretu honen 9. artikulua 3. idatz-zatian aipaturiko gaindikina itzuliko du; hori gora-behera, gero bidezko likidazioak egin ahal izango ditu, behin-behinekoak zein behin betikoak.

Gaindikina aurreko 4. idatz-zatian ezarritako epearen barruan itzuliko da. Aipatutako epe horretan gaindikina itzultzeko agintzen ez bada zergadunari ezin egotz dakiokeen kariren batengatik, itzuli beharreko kopuruari martxoaren 26ko Zergei buruzko 3/1986 Foru Arau Orokorraren 38. artikulua 2. idatz-zatiaren c) letran aipatutako berandutza-korritua ezarriko zaio, eta ezarri ere epea amaitzen den egunetik kopurua itzultzeko agintzen den eguna arte. Zergadunak ez du edukiko eskatu beharrik.

6. Artikulu honetan aipatu den itzulketa egiteko prozedura foru dekretu honen 20. artikuluan xedatutakoa dela bide egin behar diren itzulketetarako ezarritakoa izango da.

#### **11. artikulua. Zergaduna izatea.**

Kapitulu honetan araupetutako aukerako araubidea aplikatu ahal zaien pertsona fisikoek ez diote inola ere utziko zergadun izateari honako zerga honi dagokionez, nahiz eta, araubide hori aukeratzearen ondorioz, benetako zerga-ordainketa Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko araei jarraituz kalkulatu. Beraz, zergadun diren aldetik, Egoiliar ez direnen Errentaren gaineko Zergari buruzko arauetan ezarritakoaren arabera eska dakiekeen guztia bete beharko dute

### **V. KAPITULUA KONTURAKO ORDAINKETAK**

#### **LEHEN ATALA ESTABLEZIMENDU IRAUNKORRAREN BIDEZ LORTZEN DIREN ERRENTAK**

#### **12. artikulua. Establezimendu iraunkorren konturako ordainketak.**

1. Establezimendu iraunkorren bidez Egoiliar ez direnen Errentaren gaineko Zergari loturiko errentak lortzen direnean, errentek atxikipena edo konturako sarrera ekarriko dute eta establezimendu iraunkorren zioz konturako ordainketak edo zatikatuak egin beharko dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko Bizkaiko arauen menpeko erakunde egoiliarren balizko eta baldintza eurretan.

Aurreko lerroaldean xedatutakoaren arabera bidezkoa den kasuetan izan ezik, ondoren esango den kasuan ere ez da egongo ez atxikipenik ez konturako sarrerarik egin beharrik Espainiako lurraldeko egoiliarra izan gabe Sozietateen gaineko Errentari buruzko Araudia onetsi duen ekainaren 10eko 81/1997 Foru Dekretuaren 56. artikulua c) letran aipatutako jardueretako bat egiten duten finantza-erakundeek establezimendu iraunkorretan lortzen dituzten sarreren zioz (korrituak eta komisioak): sarrerak establezimendu iraunkorrek egindako maileguen ondorio direnean, aipatu c) letraren bigarren lerroaldean aipatutako errentak direnean izan ezik.

2. Establezimendu iraunkorrek Sozietateen gaineko Zergari buruzko Bizkaiko arauen menpeko erakunde egoiliarrek bezala egin beharko dituzte atxikipenak eta konturako sarrerak.

**BIGARREN ATALA**  
**ESTABLEZIMENDU IRAUNKORRIK GABE LORTZEN DIREN ERRENTAK**

**13. artikulua. Atxikipenak eta konturako sarrerak egin beharra.**

1. Zergari buruzko Foru Arauaren 30. artikuluan ezarritakoa gertatzen denean, Egoiliar ez direnen Errentaren gaineko Zergaren ziozko atxikipenak egin beharko dira establezimendu iraunkorrik ez duten zergadunek jasotzen dituzten errentengatik.
2. Aurreko paragrafoan aipatu diren errentak gauzatan ordaintzen direnean, jasotzaileak konturako sarrera egin beharko du Egoiliar ez direnen Errentaren gaineko Zergari loturiko errenten zioz.

**14. artikulua. Atxikipenak eta konturako sarrerak egin beharraren salbuespenak.**

1. Zergari buruzko foru arauko 30. artikuluko 4. idatz-zatian aipatutako kasuetako bat gertatuz gero, ez da egongo ez atxikipenik ez konturako sarrerarik egin beharrik.

Halaber, ez zaie aplikatu behar ez atxikipenik ez konturako sarrerarik Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauko 16. artikuluko 8. idatz-zatian eta Sozietateen gaineko Zergaren Araudia onetsi duen ekainaren 10eko 81/1997 Foru Dekretuko 8. artikuluan xedatutakoa aplikatuta agerian jartzen diren errentei.

2. Zergari buruzko Foru Arauaren 30. artikuluen 5. idatz-zatian xedatutakoa ezartzeko, zerga-zorra ordaindu dela edo salbuespena bidezkoa izan dela honela frogatu beharko da:
  - a) Ordainketaren kasuan, ordaindutako errentei dagokien Zergaren aitorpena, zergadunak edo beronen ordezkariak aurkeztua.
  - b) Salbuespena bidezkoa izan dela, hura bidezkoa izatea ekarri duten inguruabarrak bete direla frogatzen duten agirien bidez; nolana ere, aitortu ere egin beharko da, Zergari buruzko Foru Arauaren 30. artikuluen 5. idatz-zatian ezarri bezala.

Atxikipena edo konturako sarrera egin behar duenak, aurreko inguruabarretako bat gertatu dela frogatu duela uste izanik, atxikipena edo konturako sarrera egiten ez badu eta geroago ezartzen bada salbuespena ez dela izan bidezkoa edo zerga-zorra ez dela ordaindu, egin gabeko atxikipenagatik edo konturako sarreragatik atxikitzaile gisa dagozkion erantzukizunak eskatu ahal izango zaizkio.

3. Zergari buruzko Foru Arauaren 30. artikuluen 5. idatz-zatiaren c) letran xedatutakoak ondoreak izan ditzan, jarraian adieraziko diren errenten zioz ezin egin izango da ez atxikipenik ez konturako sarrerarik:
  - a) Ondare-irabaziak. Hala ere, honako hauen zioz, aldiz, atxikipena edo konturako sarrera egin beharko da:
    1. Jokoetan, lehiaketetan, zozketetan edo ausazko konbinaketetan parte hartzearen ondoriozko sariak. Berdin dio sariok ondasun, produktu edo zerbitzu batzuk eskaini, sustatu edo saltzearekin lotuta dauden.
    2. Bizkaian dauden ondasun higiezinaren eskualdaketa; hau foru dekretu honen 18. artikuluan ageri da.
    3. Talde inbertsioko erakundearen kapitalaren edo ondarearen adierazgarri diren akzioak edo partaidetzak eskualdatu edo itzulita lortutako errentak, Talde Inbertsioko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen Araudiko 49. artikuluan araupetutako funts edo sozietateetako partaidetzak edo haien akzioak itzulita edo eskualdatuta lortutako errentak izan ezik (araudi hori azaroaren 4ko 1.309/2005 Errege Dekretuak onetsi zuen).



- b) Uztailaren 29ko 132/2002 Foru Dekretuak onetsi zuen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudiaren 96. artikuluko b), c), f), g) eta i) letretan aipatutako errentak; b) letran aipatuetakoz batzuk aurrean esandakotik salbuetsita daude, hain zuzen ere arau bidez zerga-paradisuko kalifikatutako herrialde edo lurraldeen bidez lortzen diren errentak.
  - c) Higiezin merkatuko inbertsioetako sozietate anonimo kotizatuen araubidea aplikatzea hautatzen duten sozietateek banatzen dituzten dibidenduak.
4. Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuari ahalmena eman zaio balore negoziagarrien jaulkipenen emaitzaren gaineko atxikipena gauzatzeko prozedura ezartzeko, kasu bakoitzean dagokion tasari, edota atxikipenen salbuespenak ezartzeko.

#### **15. artikulua. Atxikipena eta konturako sarrera egin behar duten subjektuak.**

1. Zergari buruzko Foru Arauaren 30. artikulua 1. idatz-zatian aipatutako subjektuek atxikipenak edo konturako sarrerak egin beharko dituzte..
2. Finantza-aktiboen gaineko eragiketetan, Estatuaren Zorraren baloreen eskualdaketetan eta talde-inbertsioko erakundeen kapitalaren edo ondarearen ordezkagarri diren akzioen eta partaidetzen eskualdaketetan edo itzulketetan, atxikipena eta konturako sarrera egin beharko dute uztailaren 29ko 132/2002 Foru Dekretuak onetsi zuen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudiaren 97. artikulua 2. idatz-zatiko b), c) eta d) letretan ezarritakoarekin bat etorririk kontura sartu edo atxiki behar duten subjektuek.
3. Sarietarako dagokienez, sariak ordaintzen dituzten pertsona edo erakundeek atxikipena edo konturako sarrera egin beharko dituzte.
4. Atxikipena egin behar duten subjektuek egindako atxikipena sartu beharra berenganatu beharko dute; atxiki beharra ez bete arren, sarrera egin beharra bete egin beharko dute.

Etekin Bizkaiko Foru Aldundiak ordaintzen badu, atxikipena eta hari dagokion sarrera zuzenean egingo dira.

#### **16. artikulua. Atxikipena eta konturako sarrera egin beharra sortzea.**

1. Oro har, atxikipena eta konturako sarrera egin beharra Zerga sortzen den unean sortuko da, Zergari buruzko Foru Arauaren 26. artikuluan ezarri bezala.
2. Higikorren kapitalaren etekinei eta ondare-irabaziei dagokienez, hurrenez hurren uztailaren 29ko 132/2002 Foru Dekretuak onetsi zuen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudiaren 107. artikuluan eta 111.ean ezarritakoa hartuko da aintzat.

#### **17. artikulua. Egin beharreko atxikipenak eta konturako sarrerak kalkulatzeko oinarria.**

1. Oro har, atxiki beharreko kalkulatzeko oinarria Zergari buruzko Foru Arauaren 30. artikulua 2. idatz-zatian xedatutakoaren arabera zehaztuko da.
2. Atxikipena foru dekretu honen 14. artikulua 3. idatz-zatiko a) letrako 1. zenbakikoan ezarritakoari jarraikiz sortuz gero, hura kalkulatzeko oinarria sariaren zenbatekoa izango da.
3. Talde-inbertsioko erakundeen kapitalaren edo ondarearen ordezkagarri diren akzioak edo partaidetak eskualdatzen edo otzultzen direnean, atxikipen-oinarria akzio edo partaidetzen eskualdaketa- edo itzulketa- balioaren eta haien erosketa-balioaren arteko aldea izango da. Ondore horietarako, zergadunak eskualdatu edo otzultzen dituen balorea lehenik eskuratzen dituenak izango dira.
4. Errentak gauzatan ordaintzen direnean, konturako sarrera kalkulatzeko oinarria uztailaren 29ko 132/2002 Foru Dekretuak onetsi zuen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari

buruzko Araudiaren VI. tituluko III. kapituluaren xedatutakoarekin bat etorritik zehaztu da. 18. artikulua. Atxikipena edo konturako sarrera, ondasun higiezinak eskuratzen direnean.

5. ...

#### **18. artikulua. Atxikipena eta konturako sarrera, ondasun higiezinak eskuratzen direnean.**

1. Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga ordaindu behar dutenek establezimendu iraunkorrik gabe jarduten badute eta Bizkaian dauden ondasun higiezinak eskualdatzen dituztenean, eskuratzailerak adostutako kontraprestazioaren %3 atxiki eta sartu beharko dute, edo behar den konturako sarrera egin beharko dute; sarrera hori Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zioz ondasunengatik ordaindu beharreko konturako sarrera izango da.
2. Eskuratzailerak ez du edukiko atxikipena edo konturako sarrera egin beharrik ondoko kasu hauetan:
  - a) Eskualdatzailerak Zerga Administrazioaren organo eskudunak emaniko ziurtagiriaren bidez Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari edo Sozietateen gaineko Zergari loturik dagoela frogatzen duenean
  - b) Egoitza Espainian duten sozietateen kapitalak eratzeko edo handitzeko, ondasun higiezinaren ekarpena egiten denean.
3. Atxikipena edo konturako sarrera egin behar duenak eskualdaketa gertatzen denetik zenbatzen hasita hilabeteko epean, aitortzea aurkeztu beharko du eta behar den atxikipenaren edo konturako sarreraren zenbatekoa sartu beharko du.
4. Espainiako lurraldeko egoiliar ez den zergadunak aitortzea aurkeztu eta, hala bada, Zergaren ziozko behin betiko kopurua sartu beharko du; kuota konpentsatuko du eskuratzailerak atxikitakoaren edo kontura egindako sarreraren zenbatekoa, atxikipena sartzeko ezarritako epea amaitzen denetik zenbatzen hasita hiru hileko epean.

Behar diren egiaztapenak egin ondoren, Zerga Administrazioak atxikitako edo kontura sartutako gehikina itzuliko dio zergadunari.

5. Aurrean aipaturiko atxikipenaren edo konturako sarreraren kopurua sartzen ez bada, eskualdatutako ondasunak erabiliko dira atxikipenaren edo konturako sarreraren eta zerga-zorraren artean txikiena den zenbatekoa ordaintzeko; jabetzaren erregistratzaileak hori guztia agerraraziko du orri-bazterrean egindako inskripzioz, eta finka zein kopururi aurre egiteko erabiliko den adieraziko du. Ohar hori, hala badagokio, zorra iraungitzen denean kenduko da edo ondokoetako bat aurkezten denean: zorraren ordainketa-gutuna edo zor hori loturik ez dagoela edo preskribitu egin duela frogatzen duen administrazio-ziurtagiria.
6. Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak artikulua honetan xedatutakoa betetzeko erabili beharreko aitortzen-ereduak ezarriko ditu.

#### **19. artikulua. Atxikipena eta konturako sarrera egin behar duenaren betebeharrak.**

1. Egoiliar ez direnen Errentaren gaineko Zergaren zioz atxikipena edo konturako sarrera egin behar duenak apiril, uztail, urri eta urtarrilaren egutegiko lehenbiziko hogeita bost egunetan zehar aurreko egutegiko hiru hilekoan atxikitako edo kontura sartutako kopuruei buruzko aitortzea aurkeztu beharko du, eta emaitzako kopurua Foru Ogasunean sartu beharko du.

Hala ere, atxikipena edo konturako sarrera egin behar duena abenduaren 29ko 1.624/1992 Foru Dekretuak onetsitako Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Araudiaren 3. artikulua 1. idatz-zatian adierazitako inguruabarretan dagoenean, aurreko lehenbiziko hogeita bost egunetan egingo ditu, aurreko hilabetean egindako atxikipen eta konturako sarrerari

dagokienez. Salbuespen gisa, uztaileko aitortpena eta sarrera abuztuan eta irailaren egutegiko lehenbiziko hogeita bost egunetan egingo dira.

Atxikipena eta konturako sarrera egin behar dutenek aitortpen negatiboa aurkeztuko dute Zergari buruzko Foru Arauaren 30. artikulua 4. idatz-zatia adierazitako errentak ordaintzen dituztenean, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak hala adierazten duenean izan ezik.

2. Atxikitzaileak edo konturako sarrera egin behar duenak urtean egindako atxikipenen eta konturako sarreren laburpena aurkeztu behar du hurrengo urteko urtarrilaren 1etik 31ra bitartean.

Halaber, laburpena telematikoki edo ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarrian aurkezten bada, epealdi berean aurkeztu behar da.

Laburpen horretan, identifikazio-datuak ezezik, atxikipen edo konturako sarrera egin behar dutenek Zergari loturik ordaindu dituzten errentak jaso dituztenen zerrenda ere agertarazi beharko dute; zerrenda horretan Zergari buruzko Foru Arauaren 30. artikulua 5. idatz-zatia ezarritakoa dela bide atxikipena egin beharretik salbu geratu diren errentak ordaindu zaizkien izenak ere agertarazi beharko dira. Jasotzaileen zerrendan Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak adierazten dituen datuak agertu beharko dira.

Aurreko idatz-zatia ezarritako betebeharrak berberen menpean egongo dira Espainian egoitza edo ordezkariak duten erakundeak, baldin eta atxikipena edo konturako sarrera egin beharra dakarten errentak besteren kontura ordaintzen badituzte edo balore-errentak gordailatzen badituzte edo haien kobrantza kudeatzen badute.

3. Atxikipena edo konturako sarrera egin behar dutenek zergadunaren aldeko agiria eman beharko du, hain zuzen ere egindako atxikipen edo konturako sarrerak frogatzen dituen, bai eta aurreko idatz-zatia aipatutako urteko laburpenean subjektu pasiboari buruz agertarazi beharreko gainerako datuak ere.

Aurreko idatz-zatia ezarritako betebeharrak berberen menpean egongo dira Espainian egoitza edo ordezkariak duten erakundeak, baldin eta atxikipena edo konturako sarrera egin beharra dakarten errentak besteren kontura ordaintzen badituzte edo balore-errentak gordailatzen badituzte edo haien kobrantza kudeatzen badute.

4. Ordaintzaileek errentak ordaintzen dituzten unean subjektu pasiboari jakinarazi beharko diete egindako atxikipena edo konturako sarrera, eta aplikatu duten portzentaia adierazi beharko diete.
5. Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak artikulua honetan xedatutakoa betetzeko erabili beharreko aitortpen-ereduak ezarriko ditu.

## **20. artikulua. Itzulketak.**

1. Zergaren kuota baino handiagoa den atxikipena edo konturako sarrera jasaten bada, Zerga-Administrazioari gaindikina itzultzeko eskatu ahal izango zaio.

Horretarako, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak zehazten duen eremuan autolikidatuko da Zerga.

2. Zergari buruzko Foru Arauaren 3. artikulua ezarrita dagoenarekin bat etorriz, Zerga-Administrazioak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 21eko 10/1998 Foru Arauaren 104. artikulua ezarritakoaren arabera egingo ditu itzulketak.
3. Zergadunek ezezik erantzule solidarioek eta atxikipena egin beharra duten subjektuek ere itzulketa-eskabidea aurkeztu ahal izango dute aitortpenean.

4. Kontura sartutako kopuruak edo jasandako atxikipenak ezarpen bikoitzari buruzko hitzarmenen bat ezartzetik datozenak baino handiagoak badira, hitzarmena aplikatzeko eskatu ahal izango da, bai eta haren ondoriozko itzulketa egiteko ere, lau urteko epean, sarrera egin den egunetik edo atxikipena aitortu eta sartzeko epearen amaieratik zenbatu. Elkarrekikotasunik ez dagoenean, beste epe bat ezarri ahalko da.etsi duena. (BAO, irailaren 28koa)

## **21. artikulua. Lanaren errenten gainean atxikipena egin beharra egoitza aldatzen denean**

1. Inoren konturako langileek, zerga honen kargapean sartzekoak izanez gero, enplegatzaileak atzerrira aldatuko dituelako, inguruabar horren berri eman ahalko diote Zerga Administrazioari.
2. Berriemate horretan ondoko datuak jasoko dira: langilea eta lanaren etekinak ordaintzen dituena identifikatzeko datuak, langilea atzerrirantz irtengo den eguna, atzerrian lanean hasiko den eguna, eta atzerrira aldatzen den urtean bertan edo hurrengoan, lanaren ondorioz, 183 egun baino gehiago egin beharko dituela uste izateko datu objektiboak, lan harremanetan halako daturik badago.
3. Zerga Administrazioak, berriematea eta berarekin aurkeztutako agiriak aztertu ondoren, zerga honen ziozko atxikipenak zein egunetan hasiko zaizkio egiten adierazten duen frogagiria bidaliko dio langileari, bidezkoa bada, eta bidali ere berriematea aurkeztu eta hamar astegun igaro baino lehen.
4. Langileak lanaren etekinen ordaintzaileari Zerga Administrazioak emandako agiriaren ale bat emango dio, atxikipenak aplikatzean Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergaduntzat har dezan bertan adierazitako egunetik aurrera.

Frogagiri horiek ondoreak izango dituzte, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren araberrako atxikipenak egiteari dagokionez, egutegiko bi urtetan gehienez ere, hau da, langilea atzerrira doan urtean eta hurrengoan, edo bestela, atzerrira doan urtea konputatzerik ez badago, hurrengo bi urteetan.

5. Prozedura hori bera erabili ahal izango da baldin eta, Bizkaian eskuratutako errentak kalkulatu direnean, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko apirilaren 15eko 5/1999 Foru Arauaren 12. artikuluan dauden arauak aplikatuta kalkulatu ere, lurralde horretan atxikipenak egitea bidezkoa ez dela ikusten bada. Horrelakoetan langile hauek kontuan hartuko dira Zergari buruzko Foru Arauaren 30. artikuluko 6. idatz-zatian ezarritako betebeharre dagokienez.
6. Goian azaldutako prozeduraren bitartez frogagiria eskuratuta ere, langileak bere zerga egoitza berria non dagoen frogatu beharko dio Zerga Administrazioari.

## **HIRUGARREN ATALA ERRENTA-ERATXIKIPENAREN ARAUBIDEKO ERAKUNDEAK**

### **22. artikulua. Zatikako ordainketak egin beharra**

Zergari buruzko Foru Arauaren 32 sexies artikuluko 1. idatz-zatian aipatutako zergadunek zerga honen likidazioaren kontura zatikako ordainketak egin beharko dituzte, Espainiako lurraldean establezimendu iraunkorra izanik zerga honen kargapean dauden zergadunek egiten dituzten modu berean.

### **23. artikulua. Itzulketa, zergapetze bikoitza ekiditeko hitzarmen onuragarriagoari heltzen zaionean.**

Zergari buruzko Foru Arauaren 32 sexies artikuluko 4. idatz-zatian xedatutakoaren arabera zergapetze bikoitza ekiditeko hitzarmenari heltzen zaionean, Araudi honen 20. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

## XEDAPEN ERANTSIAK

### Lehenengoa.

1. Indarreko arauetan Sozietateen gaineko Zergari buruzko Araudia onetsi duen ekainaren 10eko 81/1997 Foru Dekretuaren XVI. kapituluaz egindako erreferentziak foru dekretu honetako manuez egintzat joko dira.
2. Indarreko arauetan Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ziozko konturako ordainketa batzuk araupetu, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Araudia atxikipenei eta konturako sarrerei dagokienez aldatu eta atzerriko egoiliarrek eskuratzen dituzten errenten konturako ordainketak araupetu dituen otsailaren 2ko 3/1999 Foru Dekretuaren V. tituluaz egindako erreferentziak foru dekretu honetako manuez egintzat joko dira.
3. Indarreko arauetan Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudia onetsi duen martxoaren 10eko 20/1992 Foru Dekretuaren VII. tituluaz egindako erreferentziak foru dekretu honetako manuez egintzat joko dira.

### Bigarrena. Espainiako talde inbertsioko erakundeen akzioak edo partaidetzak mugaz haraindi merkaturatzea..

1. Ondoren adieraziko den kasuan atzerrian egoiliartutako erakunde merkaturatzaileek Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Araudiko xedapen gehigarri bakarrean ezarritako zerrendak aurkeztu behar dizkiote Bizkaiko Foru Aldundiari (araudi hau uztailaren 30eko 1776/2004 Errege Dekretuak onetsi zuen, hau da, sozietate kudeatzaileek edo, bestela, Talde Inbertsioko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legeak araupetutako inbertsio sozietateek atzerrian egoiliartutako erakundeen izenean dauden kontu orokorretan akzioen edo partaidetzen mugaz haraindiko merkaturatzeeragiketak erregistratu behar dituzten kasuak araupetu dituen Errege Dekretuak): Zergari buruzko Foru Arauko 12. artikuluko 2. idatz-zatiko k) letrako a') letran ezarritakoaren arabera, akzioen eta partaidetzen titulartasunaren ondoriozko errentak Bizkaiko Lurralde Historikoan lortutzat jotzen direnean.

Horiek aurkezteko prozedurak, ereduak eta epeak Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak zehaztuko ditu.

2. Erakunde merkaturatzaileak aurreko 1. idatz-zatian eta Ezegoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Araudiko xedapen gehigarri bakarreko 3. idatz-zatian (araudi hau uztailaren 30eko 1776/2004 Errege Dekretuak onetsi zuen) aipatutako betebeharretako bat bete ezean, erakunde kudeatzaileak edo inbertsio sozietateak ez-betetzearen edo Bizkaiko Foru Aldundiari behar den informazioa ez ematearen ondorioz sartu gabeko atxikipenen eta konturako ordainketen erantzukizuna edukiko du Zerga Administrazioarekiko.
3. Erakunde merkaturatzaileak aurreko 1. idatz-zatian eta Ezegoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Araudiko xedapen gehigarri bakarreko 3. idatz-zatian (araudi hau uztailaren 30eko 1776/2004 Errege Dekretuak onetsi zuen) aipatutako betebeharretako bat bete ezean, egoiliar ez diren inbertsiogileen nortasuna eta haien zerga egoitza Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko apirilaren 15eko 5/1999 Foru Arauan eta hura garatu duten arauetan xedatutakoaren arabera egiaztatuko dira.

## XEDAPEN INDARGABETZAILEA

1. Foru dekretu hau indarrean jartzen denean indargabeturik geratuko dira lerrun bereko edo beheragoko lerruneko xedapen guztiak, eta batez ere jarraiko hauek:
  - a) Sozietateen gaineko Zergari buruzko Araudia onetsi duen ekainaren 10eko 81/1997 Foru Dekretuaren XVI. kapituluak eta xedapen erantsietatik bigarrena.

- b) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ziozko konturako ordainketa batzuk araupetu, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Araudia atxikipenei eta konturako sarrerei dagokienez aldatu eta atzerriko egoiliarrek eskuratzen dituzten errenten konturako ordainketak araupetu dituen otsailaren 2ko 3/1999 Foru Dekretuaren IV. kapitulua eta Zioen Azalpenean kapitulu horretaz egindako aipamena.
  - c) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudia onetsi duen martxoaren 10eko 20/1992 Foru Dekretuaren VII. titulua eta xedapen iragankorretako lehena.
2. Foru dekretu honen lerrun bereko eta beheagoko lerruneko xedapenetatik haren aurka ez daudenek indarrean segituko dute, hartan ezarritako gaikuntzez baliatu ezean.

Bereziki, indarrean segituko du Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga, Sozietateen gaineko Zerga eta Ondarearen gaineko Zerga, betebeharraren zioz sortzen direnean, eta Egoiliar ez diren Erakundeen Ondasun Higiezinaren gaineko Karga Berezia aitortzeko arauak eman dituen ekainaren 30eko 78/1998 Foru Dekretuak.

### **AZKEN XEDAPENA**

1. Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.
2. Establezimendu iraunkorren ari diren zergadunei dagokienez, foru dekretu honen arauak Egoiliar ez diren Errentaren gaineko Zergari buruzko apirilaren 15eko 5/1999 Foru Araua ezar daitekeen zergaldiei ezarriko zaizkie.
3. Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuari baimena eman zaio foru dekretu hau ezartzeko behar diren xedapenak eman ditzan.